



ALKATEAREN MEMORIA

2013KO AURREKONTUA

Aurrekontu hauek prestatzeari ekingo diegun honetan, badirudi krisi orokorrak gailurra jo duela; baina susperraldia motela izango dela aurreikusten da.

Jasaten ari garen sistema ekonomikoa bidegabea dela salatzen dugu: kapitalaren interesak lehenesten dira herritarren interesen gainetik, horren ondorioz herritar ugari geratzen ari da babesik gabe, eta tokiko administrazioek egoera horiei erantzun behar diete, gero eta finantziazio gutxiagorekin.

Halaber, Foru Aldundiak bildutakoa bidegabeki banatzen dela salatzen dugu: udalek % 10 jasotzen dute; beste erakunde batzuek, berriz, finantziazioa jasotzen dute erabilgarritasun eskasa duten eta ingurumenaren eta ekonomiaren arloan iraunkorrak ez diren proiektuak bultzatzeko, hiriburuetan bizi ez diren herritarren ezkutuan.

Aldarrikatzen dugu Udal Finantziazioaren Foru Funtsa banatzeko irizpideak kontuan hartu beharko lukeela, udal erroldaz gain, familia-errenta; udalerrri behartsu eta aberatsen arteko aldea areagotu ez dadin, eta eremu marjinalik sor ez dadin; gure udalerrian arrisku hori bai baitago.

Udalaren egoera ekonomikoaren ondorioz, ez daukagu jarduteko tarte handirik; behartuta gaude zerga-bilketan ohiz kanpoko ahalegina egitera, 2012-2015 Bideragarritasun Planarekin bat; halaber, behartuta gaude aurrekontua prestatzeko garaian zuhurtziazko irizpideak erabiltzera, sarreraren kontusailetan zorrotzak izatera, eta gastu-kredituetan errealistak izatera. Mailegu-amortizazioen kapituluan azken urteetan izan den bolumenik handiena jasan behar du ekitaldi honek. Datorren urterako 750.000 euroko murrizketa aurreikusten dugu.

Jarduteko ardatzak:

- Gastu arruntari eustea: baliabide materialak eta giza baliabideak optimizatzea. Zerbitzuen kontratazioan aurrezteak, Aldundiko Erosketa Zentralaren bitartez. Pertsonaleko gastua murriztea.
- Gobernu Talde honek hitzemandako ildo estrategikoei eustea. Osorik onartzen dira arlo hauetan diharduten sailen proposamenak: Gizarte Ekintza, Berdintasuna, Migrazioa, haur eta gazteen babesa eta Euskara.
- Diru-laguntzak berraztertzea, eta egoera ahulena duten sektoreei zuzendutakoak igotzea. Zergak eta tasak ordaintzeko laguntzak hirukoiztea, Zerga Ordenantzak onartu zirenean hartutako konpromisoari euste aldera. Gizarteratzea eta gazteria. Gizarte-kohesioari eragiten ez diotela uste dugun arloetan murrizketak egitea. Gastuak murriztea festetan
- Aldundiarekin sinatutako Berriztatze Hitzarmenaren bidez, inbertsio-ahalegina mantentzen da.

Aurrekontu arrunta % 3,31 igo da aurreko ekitaldiarekiko, eta balio hau du: 18.019.853,47 euro. Eragin berezia izan dute aurrekontuan amortizazioen, prezioen eta BEZaren igoerek.



Erakunde autonomikoekin batera aurrekontua 21.211.090,81 eurokoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dagoen hitzarmena gehitu aurretik.

Gastuak

- Pertsonaleko gastuei dagokienez, soldatak izozteaz gain, aurrezteko bi neurri hartu dira batez ere: baja eta oporren ordezkapenak murriztea, eta erretiroagatik hutsik geratzen diren postuak ahalik eta gutxien betetzea, zerbitzuen arreta bermatzeko adina baino ez. Elkarkidetzari arrisku-kuota baino ez ordaintzea. Euskaltegiko bi irakasle Euskara Sailera laguntza-teknikari gisa lekualdatzeko akordioari eusten zaio.
- II. Kapituluari, gastuari eusteko ahaleginak egin diren arren, aurreko ekitaldian bezalaxe, igorak jaso dira prezioen eta BEZaren iguera jasaten duten kontusailetan, hala nola: garbiketa; hondakinen kudeaketa; ura, argindarra eta energia; eta ondare-erantzukizuna. Aurrezpen handienak gastu hauetan lortu dira: telefonia, aseguruaren primak eta argiteria.
- Finantza-pasiboen kapituluari amortizazioen iguera jasotzen da, UFFFren 2011ko likidazio negatiboa kitatzeko maileguari dagokiona.
- Oarsoaldea Garapen Agentziari egiten zaizkion transferentziak bateratu egin dira, eta 70.245 euro igo dira; zenbateko hori 2010. eta 2011. ekitaldiak likidatzeko akordioari dagokio.
- Udaleko organoetara bertaratzeagatik kobratzen diren dietak kentzea proposatzen da; halaber, talde politikoei urtero egiten zaien transferentzia 36.000 eurora murriztea proposatzen da.
- Bi arlo hauetako diru-zuzkidurak mantentzen dira: gazteria arloa eta haurrak eta nerabeak babesteko programa, hainbat sailen artean gauzatzen dena.
- Gizarte Ekintzan, Berdintasunean eta Migrazioan osorik jasotzen dira saileko teknikariaren proposamenak.
- Euren aurrekontuak proposatu dituzten erakunde autonomoen ekarpenak ere osorik jasotzen dira.

Sarrerak

- Sarrera arruntak igo egin dira, 2012ko ekitaldian aitortutako eskubideen gaineko zerga ordenantzaren aplikazioa kontuan hartuta. Hiri-ondasunen gaineko zergari dagokiona igo egin da, katastro-balioaren eguneratzearekin, hutsik dauden etxebizitzaren gaineko errekararekin, eta aurtengo etxebizitzaren iguera netoarekin. Eraikuntza eta Obren Zergan Velascoren 2. fasearen sustapena jaso da. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokionez, termika behin betiko ixtea aurreikusten da; espedientea aurkezteke dute oraindik. Halaber, kontuan hartu da bai salbuespen-mugaren jaitziera eta baita jarduera murriztu izana ere.



- Ahalegin berezia egin da sarrera-iturri berriak bilatzeko. Hilerrien Ordenantzaren onarpenak igoera ekarriko du ondare-sarreretan, ehorzte-eskubideengatik.
- Tasen igoerak zerbitzuak ematerakoan sortzen den defizita murriztea ahalbidetuko du, bereziki, saneamendu, ur-hornidura eta hondakinen kudeaketako zerbitzuetan. Eta tasa horiekin inguruko udalerrietako tasetara hurbilduko gara.
- Kapital-sarrerei dagokienez, 578819 euroko kontusail bat jasotzen da, Bidasoa Goiako Hitzarmenari dagokiona; horrek gastu-partida ere badu, eremuko urbanizazioan inbertitzeko.
- Transferentzia arruntei dagokienez, Foru Funtsaren aurrekontua jasotzen da, Aldundiak jakinarazitakoa.
- Aurrekontua orekatzeko, proposatzen da transferentzia bat egitea, Zaharren Egoitzaren gerakinaren likidazioaren kontura, izan ere, 2011ko ekitaldia ixteko gutxi falta den honetan, ez da likidazio horren balioa jaistea aurreikusten, aitzitik, pixka bat igotzea aurreikusten da.
- Kapital-gastuen finantziaketa osatzeko, 112.896,13 euroko mailegua aurreikusten da.

Amaia Agirregabiria
Pasaia alkatea

Pasaian, 2013ko urtarrilaren 21ean.